

Goizuetako udal ordenantzak

JOSE M. SATRUSTEGI*

Euskaraz idatzitako ordenantzak agertu dira Goizuetako udal artxiboan. Euskal testuen harrobi emankorra gertatzen ari zaigu azken aldian Nafarroa. Mendez mende eta herriz herri ugarituz doa izkribu zaharren lekukotasuna. Ez da ohikoa, hala ere, jasotako kopuruan herri-aginte eta administrarien emaitza, salbuespen eta bitxikeritzat jotzen delarik erlijio gaiez landa sortutako edozein azalpen.

Hemeretzigarren mendeko izkribuak dira Goizuetako Udaletxean aurkitutako hauek eta herriak “bere governu onerako” zerabilzkien aginduak dakartza euskaraz. Datari dagokionez, badira garai desberdineko azalpenak eta, hala beharrez, urtea ere badaramate testuek. Lehena 1825ekoa da, gaztelaniaz borobildutako testuaren itzulpen moduan egindako zirriborroa delarik.

Erdarazko eredu ofizialari loturik dago hasieran euskarazko testua eta zuzenketa ugari egin zitzaion lehen idazkerari. Ulergarritasunari begira parentesi artean agertuko da zuzendutako hitza, eta kurtsibaz ordaina. Hamahiru artikululu ditu guztira eta bi zutabetan joango dira gai bereko atalak.

Gazteleraz idatzitako papera bakarrik izenpetu zuten herri agintariak eta berorrek darama data ere. Dirudenez, urtero elizan irakurtzeko egingo zen euskarazko itzulpena, erdaldunak zuelarik legezko ofizialtasuna.

Hauek dira izkribuak:

* Euskaltzaindia.

I.

ORDENANZAS DE LA VILLA DE GOIZUETA QUE SE PUBLICAN TODOS LOS AÑOS DESDE EL PULPITO DE SU PARROQUIAL CON EL PRIMER DOMINGO DE CADA AÑO EN LO REGULAR AL TIEMPO DEL OFERTORIO DE LA MISA POPULAR. (Dentro la Novena de San Jose)¹

Goizuetaco Villac bere governu oneraco, Jaungoicoaren eta Erregueren Magestadearen servitzuraco disponituric dauzquien ordenanzac, aguincen zaiotela Vecino, eta habitante guciai guarda, eta observa ditzatela dirade oiec:

1. *Lenvicico ordenanza:* Ygande, eta preceptozco festa gucietan acudi dezatela oficio Divinoetara, eta meza nagusico, vezperetaco, eta Rosarioco demboran eztezala niorc ere jocatu ez pelotan, eta ez beste jocotan ez plazan, ez tabernetan, eta ez beste toquitan, eta eztutenac au guardatcen izanen dirala castigatuac prisioaquin, eta multaquin.

2. *Bigarrena:* guciac recoge deitecela beren icheetara Purgatorioco animen ezquilla, edo queda io orduco, eta dembora au ezquero tabernariac eztezatela admiti nior ere tabernetan ez carta iocoan, eta ez beste bulletan, eta eztutenac obserbatcen izanen dirala castigatuac multa rigorosoquin. Ala Tabernara dijoacenac ordua ura ezquero, eta admiticten dituztenac².

3. *Yrugarrena:* Damboliñac eztezala soñuric io (arratseco)³ *illunabarreco* ave Mari ezquilla ezquero ez plazan, ez carriquetan, ez tabernetan, eta ez beste toquitan, bada izanen dela castigatua crueldade guciarequin.

4. *Laugarrena:* guciac, conforma deitecela Obispadu onetaco Sinodalaren capituloetan, eta Obispo Jau-

Ordenanzas q(u)e pa(ra) el buen Gobierno de esta Villa de Goizueta; y servicio de ambas Magestades, establecen y mandan los S.S. A(lca)lde y Regidores de esta Villa, á todos los Vecinos y havitantes de ella observar y guardar por los Capítulos siguientes.

1. *Sobre Juego*

Primeramente que todos los Domingos y fiestas acudan a los divinos oficios y que al tiempo de la Misa Popular y Vísperas y Sant(isi)mo Rosario ninguno Juegue a Pelota, ni otro Juego en la Plaza y Plazuelas, ni Tavernas, de esta Villa con apercivimiento que serán castigados con multas y Prision de sus personas.

2. *Tabernas*

Que todos se recojan á sus Casas para el tiempo de la queda y que las Taberernas despues de la queda no admitan á ninguno á Juego de Naipes, ny otro bullicio, pena de que seran castigados ellos, y ellas con el mayor rigor.

3. *Jular*

Que despues de las Avemarias a la tardeada el Jular no toque ni taña en la plaza, tavernas ni otras partes, pena de que será castigado con severidad, de que se le apercive.

4. *Capit(ulo)s Sinodales*

Que ninguno contravenga á los Capit(ulo)s sinodales, de este Obispa-

1. San Joseren bederatziurrena martxoan egin ohi da. Urtean bi aldiz irakurtzen ote ziren pulpitutik?

2. Azkeneko perpausa zuzentzaileak gehitu dio.

3. (Arratseco) ezabaturik dago eta zuzentzaileak *illunabarreko* ipini du. Hemendik aurrera horrela azpimarratuko dira aldaketak.

nen visitetaco mandatoetan, atrevitu bague nior ere gabaz ezquillac iotcera (arratseco) *illunaberreco* Ave Mari ezquilla ezquero *biaramoneco ezquilla artea*⁴ disponituric dauden penen azpian (...).

5. *Bostcarrena*: baldin beren desgraciaz fligresia⁵ onetaco personaren batzuec iderotcen badira amancebamentuoco estadu miserablean procura dezatela ateratcea beren estadu gaiztotic, eta bestela Alcate Jauna(k) procedituco *duela* (dezala)⁶ justician, recebitcen duela informacioa, eta bidalcen duela Iruñeco Corte Realera.

6. *Seigarrena*: eztadiela nior ere atrevi arbolico evaquitcera ez sarobee-tan, eta ez dixiduetan bi ducaten penan evaquitcen duen arbola bacoitzagatic, eta pena onen beraren ezpian eztadiela nior pasatu (mendiai), *larrai* su ematera Alcate, eta Erregidore Jaunen licenciatic bague; bada Jaun oiec enteraturic necesidadeaz proveitucote dute gonveni dena evitatceco experimentatu izandu diran dañuac.

7. *Zazpigarrena*: tabernariac, eta beste edozain personac eztezatela saldu ardoric, non ta ezten arrendacioric, arrendacioco escrituran disponitcen diran penen azpian: eta tabernariac bete ditzatela neurriac arrazoia den bezala garvitcen dituztela maiz⁷ eta au berau executa dezatela Aguardientaren, olioaren, eta (lumeraren)⁸ arrendacioco provisioa dutenac, eta beren salzalleac evitatceco experimentatu izandu diran maliciac, eta engañoac; eta baldin ezpadute onequin cumplitcen malicia, eta engañoa probatcen zaioten bacoitcean izanen dela bacoitza bi ducatez multatua.

do, y mandatos de la visita de los S(eñor)es Obispos, repicando Campanas despues de las avemarias de la Tardeada, hasta las del dia siguiente por la mañana, so las penas dispuestas.

5. Amancebamiento

Que si por desgracia algunas personas estubieren en esta feligresia en el estado miserable de Amancebamiento procuren salir de su mal estado, con apercibimiento de que el A(lca)lde. procedera en Justicia remitiendo las informaciones á la Real Corte.

6. Sobre cortes de Arboles en seles y exidos

Que ninguno sea osado de cortar Arboles en seles y exidos, pena de dos Ducados por cada pie, y que so la misma pena no pasen á dar Fuego á los Yermos sin expresa licencia de dichos Ses. A(lca)lde. y Reg(idores), quienes enterados de la urgencia prove(an) lo que combenga para evitar los daños que se han experimentado.

7. Sobre medir bien el Vino, Aceite y otras cosas

Que las Taverneras ni otra persona alguna no venda Vino, que no sea de la Arrendacion so las penas de la Escritura de Arriendo y que en dichas Tavernas llenen las medidas como es justo, limpiandolas con frecuencia y que lo mismo ejecuten los Arrendadores y vendedores de las provisiones de Aguardiente, Aceite dulce, grasa de Vallena y Abadejo y evitar los fraudes que se han experimentado, que de lo contrario tendran de multa dos Ducados por cada persona, y doble si reinciden.

4. Lerro gainean idatzi du zuzentzaileak atal hau. Amaierako parentesia bere puntuekin eskuizkribuan dago.

5. feligresia.

6. *Alcate Jauna procedi dezala*, zioen lehen idazkeran.

7. *maizago*, zioen hasieran.

8. *lumera* edo arrain koipea. Hitz hau parentesi artean ezarririk dago.

8. *Zorcigarrena*: (arratseco) *illunabarreco* Ave Maria ezquilla ezquero eztabillala nior ere carriquetan itz mudatuaquin, edo itz motelca: ez eta ere naiz egunaz, eta naiz gabaz esaten, eta cantatcen dituela itz ciquiñac, eta canta deshonestoac: are guchiago irrinciaz, atajatceco emendic sorcen diran dañuac; bada experienciac ala eracusiric Nafarroaco Reinuac Estellaco Ciudadean celebratu cituen Corteetan berroguet ta emeretcigarren leguean dauca disponitua onelacoen contra, baldin noblea ezpada eun azote, eta bi urteco desterrua Pueblotic, eta baldin noblea bada bi urteco presidioa; aguincen diotela Alcateai *Yaunai*¹⁰ onelaco Pueblo alborototzalleen contra, recebi dezatela informacioa oficioz, averiguatceco nor diran culpanteac, eta castigatceco pena oiequin, eta baldin Alcate Jaunac ezpadu onetan bere obligacioz cumplitcen, daquielaa gabaz Puebloa revolbitcen dituztela¹¹, eta legue au austen, ezpadu informacioa recebitcen, eta culpanteen contra proceditcen izan dezala¹² eun libraren pena, eta izan dadiela residenciaco casoa, au da, onelaco Alcate obligacio onequin cumplitu eztuenaren contra emateco quexa, eta contu allegatcen denean onara Juez residenciacoa.

9. *Bederetcigarrena*: ogui salzalleac, edo oquiñac eguin dezatela oguiaria ongui garvituric, eta sal dezatela ongui erreric, eguin, ta consentitu bague oraindaño experimentatu diran maliciac, eta tamprac¹³, arreglatcen diradela precio corrientetara, eta onetan iduqui bear dute contu, ta cuidado Erregidore Jaunac.

8. *Sobre relinchos y otras cosas indecentes*⁹

Que despues de las Avemarias ninguna persona ande por las Calles hablando con voz mudada, decir ni cantar de dia ni de noche palabras sucias ni otros cantares desonestos, y menos relinchos, para que se atagen los daños que se pueden originar, pues por haver mostrado asi la esperiencia esta acordado por la ley 59, folio 883 de las vltimas Cortes de Estella, lo arriba expresado, so pena de cien azotes, y dos años de destierro, del Pueblo mandando á los Al(cal)des. que de oficio contra los tales reboltosos recivan informacion aberiguando los culpados, y contra estos executar dichas penas y si en esto andubieren omisos los Alcaldes saviendo que se ha contrabenido á esta ley, y no recibiesen informacion, o no procediesen contra los delinquentes á el castigo, tengan de pena cien libras y sea caso de residencia.

9. *Panaderas*

Que las Panaderas vendan el Pan de Trigo bien lavado y cocido arreglandose a los precios corrientes sin hacer, ni consentir los fraudes que se an experimentado, y se les apercibe de parte de dichos regidores.

9. Euskarazko eta erdarazko testuak ez dira berdinak alkate ajola-gabearen zigorrari dagokionean. Noble eta ez noblearen arteko bereizketa ere egiten da euskal testuan.

10. *Alcateai* dio izkribuak. *Yaunai* erantsi dio lerro artean zu-zentzaileak.

11. *dutela* esan behar luke.

12. *dezatela* zioen lehenik.

13. tranpak.

10. (*Amargarrena*: eztezala niorc ere pasa Erri onetaco zubitan *eta galzadetan*, idi cargaturic, ez eta ere gurdi cargaturic, eta utsic bi ducaten penan, non ta ezten goviernoco Jaunen licenciatic.)¹⁴

11. *Amaicagarrena*:¹⁵ Nafarroaco Reinuaren laugarren legueac izan dezan cumplimentu aguincen da, eta ordenatcen eztaietaco, entierroetaco eta honretaco conviteetara solo acudi dezaquetela funcioa den iche artan vici diranac, humeac, suñac, anaieac, eta beren emazteac, eta baldin oiez gañera allegatcen bada nior convite oietara gonvidatzalleac eun ducat pena, eta convidatu bacoitzac amar ducat, aplicatua tercio bat Fisco Errealari, bigarren tercioa contu eman duenari, eta irugarrena Eliza oni; eta onez gañera izan dezatela oguei eguneco carcela, eta illabete bateco desterrua.

12. *Amavigarrena*: evitactegatic¹⁶ Comunaren perjuicioan cometicten diraden escesoac oguiñen eta sugeto recarderoen edo bigarreanean gauza salcten dutenen partetic, bada alacoac esperatu gabe Vecinoac eta habitanteac erosi dezaten bear dutena beren Echeetaraco, erosden dute Errira etorcen diran alimentu, naiz gauza pagaturic gueiago, besteai lecuric eman gabe; prevenicten eta amonestacten zaiote aurrera conteni daitecen, bada bestela egonen da precisatua Alcate Jauna aien contra procedicteco, bada oguiñac asco aldiz obligacten dute Errotaria bigarreanean igoracictea iriña, baita ere Zaira, eta salcen dute oguia sustanciaric gabe, eta erre gabea.

13. *Amairugarrena*: Aguincen eta ordenacten da; ez dadiela atrevitu ez Vecinoric, eta habitanteric, Janari gauzaric salcera ez Plazan, ez Dendetan, eta ez beste lecutan, ecusi gabe Erregimentu Jaunac, zeñec ecusiric gauzaren calidadea emanen diote mereci duen tasa. Ordenanza au guardacen ez duenac izanen du ducatan bat multa arrapacten duten ocasio baicoictean.

Ohitura arrunta zatekeen Goizuetan Udalaren erdarazko bandoak elizan euskaraz jakinaraztea aurreko ordenantzec espreski dioeten moduan. Apaiza bera izango zen batzuetan itzultzailea. Adibidez, frantsesen eraso denboran emandako bando baten azpian, honela aitortzen du herriko apaizak:

“Se publicó en Goizueta en lengua Bulgar Bascongada en 25 de marzo de 1807, de que certifico D. Ramon Joaquin de Huarte, Vicario”.

II

Udaletzeko izkribuen ildo beretik, lizarrak landatzeari buruz plazaratutako bando solte bat agertu da 1848ko apirilaren 24an euskaraz emana. Honela dio:

Bando fresnos

Erria ari vaita disposicioac arcen miteguiac eguiteco, gaur edo viar izan ez dadien disputaric plantac aldaceco juntan determinatu da arrucaborda bacochari vere inguruan señalacea golde vat eta erdico terrenoac, planta dizaten yaveac Lizarrac sei urtearen buruan gaur danic, eta bestela erriac edo Veci-

14. Hamargarren artikuluko hau ezabaturik dago euskal testuan eta ez dago erdarazkoan.

15. Artikuluaren zenbakia zuzendurik dago *Amaicagarrena* dio, *ordenanza* hitza ezabaturik.

16. Hamabigarren eta hamahirugarren artikuluko hauek zuzentzaileak edo beste pertsonaren batek idatzi ditu. Adierazgarri nagusia *te* letren aldaketa da *ct* idatziz. Hutsune bera egin zuen zuzentzaileak 2. artikuluko gehigarrian *admiticten* hitza idaztean.

Adibidez: *evitactea*, *cometicten*, *salcten*, *prevenicten*, *amonestacten*, *procedicteco* *igoracictea*, hamabigarren artikuluan. Eta hori bera ikus daiteke hamahirugarreanean.

noac libremente sartuco dutela plantac libremente arrucabordaren ondoraño.
24 abril de 1848

Se yzo dicho vando en mismo dia y en otra del Año 1848.
Juan Fran(cis)co de Sarrieta.

III

Laster beteko dituzte ehun urte Goizuetako udalak euskaraz emandako hurrengo Ordenantzek. Laurogeita zazpi artikulua eta hiru azken erabaki orokor ditu bertako Udaletxean dagoen eskuizkribuak. *Goizuetaco errico ordenanza municipalac*, dio lehen orriko izenburuak. Hogeita bat orrialdeko euskal testua dator gero, eta data erdaraz dago amaieran. Honela dio: Goizuetan 26 Setbre. 1897 día de su publicación. Ez du inork sinatzen.

Gaiari dagokionez, Ordenantza hauen bi heren kaleko arazoei buruz emandako aginduak dira. Artzai eta nekazari herria izan arren, hogeita bat artikulutan bakarrik sartzen dira mendien baliapenaz, animalien gobernuaz eta Udal eremuko mugei buruz emandako erabakiak (63-84 art.).

Herriko ostatuak bete beharreko baldintzak lehen sei ataletan agertzen dira, bisitarien duintasuna zainduz, “alperrai, desertoreari eta bide gaistoan dabilzan gende guciari” ostatu ematea debekatzen duelarik.

Bitxia bada ere, ihauteriena da bigarren gaia zerrendan (8-13 art.). Mozorroek ezin dituzte eraman “Magistraduen trageac, Apaizenac, Militarrenac, edo beste edocin uniformeac”. Era berean ezin dute ibili armarik. Azpimarratzekoa puntu hau, beste bi artikulutan ere aipatzen baita tiroen debekua. Zazpigarrenean: “Debecatua guelditcen da tiroric tiratcea edociñ arma clase-requin, coheteric botatcea, petardoric edo cartucho dinamitazcoric sutcea erri onetan eta bere inguruetan Autoridadearen permisoric gabe”. Eta gero 41.ean berriro dio: “Debecatua guelditcen da tiroric botatcea erri onen barranean”.

Atal handiena hala ere, biztanleen bilerak debekatu, jokuak eta kirolak baldintzatu eta etxe berritze edo hargin lanak arautzen dituen da (20-62). Elkartzea gaizki ikusia zen herriko ohituretan legearen arabera: “Ez dirade licenci izanen billerac, ez icheetan, ez campoetan leguearen barranean daudenac izanagatic, bada lenago cumplitu bearco ditu formalidadeac caso oyeta-co jarriac daudenac. Directoreac, presidenteac edo billera au pensatu dutenac izanen dira responsableac biar diran formalidadeac cumplitu ez badituzte” (23). “Modu berean debecatcen da formatcea person mordoscaric cale publicoetan dabillan gendean estorboric eguitemo moduan” (26).

Jolas eta kirolei buruz, hau dio: “Debecatua gelditcen dá jarcea cale publicoetan pelota jocoric, boloenic edo beste edocin claseric estorba dezaque-nic gendearen ebillera” (30).

Behartsu eta eskalei buruz honako hau dio 25. artikulua: “Modu berean debecatua dago pobre campotarrac, limosna escatcea erri ontan”.

“Erri ontaco pobreac escatu nay baldin badute limosna, biarco dute licencia Ayuntamientoarena eta onec emanen diote edo ez diote emanen berrari iduritcen ez baldin bazayo”.

GOIZUETAKO ERRICO ORDENANZA MUNICIPALAC

Erri ontaco Ayuntamientoac formatu ditu ordenanza berriac eta izandu dirá aprobatuac Naparroco Gobernadoreac illabete onen amabostean eta dirá modu onetan.

Lendabicoa. Iñorc idequi nay baldin badu caferic, tabernaric, edo huespedetaco echeric escatuco dio licencia errico Alcateari eta echez mudatcen diranean emango dute avisoa Autoridadeari.

Bigarrena. Debecatua guelditcen da establecimentu oyetan ostatu ematea, alperriari, Desertoreari eta bide gaistoan dabillzan gende guciari.

Irugarrena. Cafeac, tabernac eta gañeraco establecimentu guciac¹⁷ ichico dirá faltaric gabe arratseco bederacietan, urriaren lendabico egunetic asi eta Marchoaren ogueita amaicagarren eguna bitartean eta gañeraco illabeteetan ichico dirá gabeco amarretan, eta gende guciac non ta familicoa ez dan edo ayequin bici dena ateraco da ostatutic campora (eta gañera ez dirá idequico establecimentu oyec argui ezquillac jo bitartean, eta modu berean guelditcen da debecatua edariric campora ematea esan dan ordu oyetaz fuera)¹⁸.

Edocin circunstanciz edo casoiz iduritcen bazayo errico Autoridadeari ordu oyec mudatu biar dirala, ematen dió Ayuntamientoac escua berari iduricen zayon moduan mudatceco.

Laugarrena. Taberero guciac izanen dute obligacioa aviso edo parte ematecoa Autoridadeari edo Alguacilari, beren establecimentuetan edocin cuestio edo disputa suertacen dala, modu berean emanen dute aditcera iñorc eguiten badu resistenciric ateratceco echetic errondaco orduan.

Bostagarrena. Modu berean guelditcen da debecatua salcea edari galduac edo mezcla gaiztoequin componduac osasunaraco calte eguiteco moducoac eta ematea cobrezco, plomuzco edo zincazco oncietan eta iñori arrapatcen baldin bazaizca esan dirán onci clase oyec izanen du multa bost peceta eta galduco ditu onciac, eta gañera pasatuco dá partea Tribunaletara ala tocacen danean.

Seigarrena. Establecimentu oyec guciac id(u)qui¹⁹ biar dute ongui arguituac illunabarretic ichitceco orduraño eta gañera argui oriec egon bear dute alturan lurretic escuarequin arrapatu ez ditezquen moduan iñorc itzali ez ditzan intencio gaistoarequin.

Zazpigarrena. Debecatua guelditcen da tiroric tiratcea edociñ arma clase-requin, coheteric bo(ta)tcea²⁰, petardoric edo cartucho dinamitazcoric sutcea erri onetan eta bere inguruetan Autoridadearen permisoric gabe.

Zortzigarrena. Carnabaletan permitituco da ebiltcea caleetan mozorroac caretara edo mascaraquin, baño carreta²¹ edo máscara quendu biarco du avemari ezquilla jotcen dan *becin* pronto.

17. *gucietan*, lehen idazkera.

18. Parentesi arteko testua marra beltzez ezabaturik dago.

19. Gure kopian *id(u)qui* ez da ongi irakurtzen.

20. *botcea* dio izkribuak.

21. *careta*

Bederatcigarrena. Modu berean debecatua guelditcen da eramatea edo ebiltcea Magistraduen trageac, Apaicenac, Militarrenac edo beste edocin unifornaeac.

Amargarrena. Modu berean guelditcen da prohibitua ó debecatua mozorroac eramatea armac.

Amaicagarrena. Autoridadeac edo bere dependienteac izanen dute escua mozorroari arpeguia agerracitcecoa faltan bat cometicen duten demboran edo armatcen dutenean disgustoa edo cuestion bat beren ebillerarequin.

Amabigarrena. Modu berean debecatua guelditcen da mozorroac edo máscarac erabiltcea ezquillaric, trompetaric, chincherriric, atabalic edo beste instrumentu errico gendea molestatu dezaquenic.

Amairugarrena. Mozorroac faltatcen baldin badute artículo leitu diran ayeri, edo gañeco bando, reglamento eta legueari, izanen dira momentu berean gueldituac Autoridadearen dependientearen bidez, eta entregatuac Autoridadeari bear dan castigua emateco.

Amalaugarrena. Elizan edo bere inguruetan iñorc eguiten badu cerbait oquerric edo faltatu Regilio²² Catolicoari, izango dá bertan guelditua eta entregatua Juzgaduari tocacen dán castigua emateco.

Amabostgarrena. Modu berean guelditcen dá debecatua ezquillaric jotcea trumoya edo tempestaderic dán demboran, bada probatua dago mesede eguin biarrean calte eguiten duela cergatican ezquillaren soñuac ecartcen duen beregana chimista.

Amaseygarrena. Modu berean debecatua guelditcen da, Campo Santuan deuz letreric jarcea Ayuntamientoren licenciric gabe, cergatican jarri biar dirán letreroac izan biar dute errespetocoac eta formalac.

Amazazpigarrena. Modu berean debecatua guelditcen dá illaric enterrateca oguei eta lau ordu cumplitu baño lenago eta beti Juzgaduco licenciarequin legueac aguincen duan bezala.

Emezortzigarrena. Gorputzac ez dira eduquico echeetan costumbrea dán baño dembora gueyagoan Medicuac certificacioa eman ezquero, non ta onec disponitcen ez duan berela eramateco osasuneraco ala conveni dalacoz.

Emerecigarrena. Modu berean debecatua guelditcen da gorputz illac Elizan barrena sarcea bada eramango dirá echetic Campo Santura.

Ogueigarrena. Modu berean debecatua guelditcen da naiz egunaz eta gabaz billera gaizto edo alborotoric jarcea cale edo plaza publicoetan.

Ogueitabatgarrena. Modu berean debecatua guelditcen da billera publicoric edo secretocoric eguitea paquea, moralidadea eta costumbre onen contra.

Ogueitabigarrena. Modu berean debecatua guelditcen da sociedade publicoric edo privaturic paisco leguearen contra.

Ogueitairugarrena. Ez dirade licenci izanen billerac, ez icheetan, ez campoetan leguearen barrenean daudenac izanagatic, bada lenago cumplitu bearco ditu formalidadeac caso oyetaco jarriac daudenac.

Directoreac, presidenteac edo billera au pensatu dutenac izanen dirá responsableac biar dirán formalidadeac cumplitu ez badituzte eta billera borratu du Autoridadeac edo bere dependienteac.

Ogueita laugarrena. Debecatua guelditcen da atzaparric eguitea, quentcea edo ciquintcea bando aviso edo beste paperic oficialic Autoridadeac jarcen duenic lecu publicoetan. Artículo onen contra deuz eguiten duenac²³ izango da entregatua Juzgadura.

Ogueita bostgarrena. Modu berean debecatua dago pobre campotarrac limosna escatcea erri ontan.

Erriontaco pobreac escatu nay baldin badute limosna, biarco dute licencia Ayuntamientoarena eta onec emanen diote edo ez diote emanen berari iduritcen ez baldin bazayo.

Ogueitaseigarrena. Modu berean debecatcen da formatcea person mordoscaric cale publicoetan dabillan gendeari estorboric eguiteco moduan.

Ogueitazazpigarrena. Debecatua izango da jarcea cale públicoetan, zuage edo beste material obrataco biar danic, utcicea zacarric abandonaturic, muebleric, instrumentoric, aparato labranzacoric, edo maquinari edo beste edocin pusca estorbatu dezaquenic, gendearen ebillera edo desgraciric ecarri dezaquenic.

Ogueitazortzigarrena. Erremedioric gabe utci bear diranean gabaz, calean edo bide publicoetan depositu materialenic edo beste edocin gauza, jarrico dirá ayen beren gañea(n) farola bat edo gueyago pistuac bertan allegatu baño lenago icusi ditecen.

Ogueitabederatcigarrena. Debecatua guelditcen dá trabajatcea eche atarrietan edo calean erdian deus ere oficiotan edo industriatan, jarcea bancuac herreroenac edo Zurguiñenac, edocin beste claseric.

Ogueita amargarrena. Debecatua guelditcen dá jarcea cale publicoetan pelota jocoric, boloenic edo beste edocin claseric estorba dezaqueanic gendearen ebillera.

Joco oyec solamente izango dute libertadea jarceco lecu señalatuetan edo erritic campoan.

Ogueita amaicagarrena. Debecatua guelditcen da lotcea abereac eta beste edocin ganadu echeco erraja edo atetan estorbatuaz gendearen ebiltceco modua.

Ogueita amabigarrena. Arquitcen diranean calean bi coche edo carro artuco du bacoachac bere escuñecoaldea eta calea baldin bada estua eta eciñ badiquezque pasatu bi elcarrequin, itzulico da esquiña aldena daucana, eta calea baldiñ badago aldapean itzulico da beti goti dijuana.

Ogueita amairugarrena. Debecatua guelditcen da eguitea obraric echean campoco aldetan, edificio edo cale publicoetan licenciric escatu gabe Ayuntamientoari, formaturic expediente eta aprobacioa planoena eta diseñoena.

Ogueita amalaugarrena. Eguiten diranean obrac eche aurretan portaletan, edo eche paseotan jarri bearco da barrera bat edo esi bat obrac aguintcen duen lecu gucian evitatceagatic iñor ez dadien pasatu azpitic edo ez dadien guertatu desgraciric. Esi oyec ez dute artuco bi metro terreno baicic conta tuaz eche aurretic eta cerbait gauza ocurritcen baldin bada espero ez dana escatuco zayo licencia Ayuntamientoari.

Ogueita amabostgarrena. Cerbait obra eguiteco izango balitzaque necesidadea alchatceco paseoc edo caleac eguiñen dute beren costutic nagusiac eta

23. duena

gañera obligatuac egongo dirá jarcea gauzac lenago zauden moduan berroquey ta zortci orduren barrenean obra pucatu²⁴ ondorean.

Ogueita amaseigarrena. Edificio edo eche jabeac izango dute obligacioa Alcateari parte ematecoa sumatcen duten becin pronto peligroan daudela beren echeac eta gañera artuco dituzte beren disposicioac eta medidac guertatu ez dadiñ desgraciric eta gañera autoridadeac bere partetic artuco ditu bere determinacioac. Ayuntamentuac perituarequin batean pensatuco baluque botatcea edificio bat peligro aundian dagona erorceco, yabeac cumplituco du disposicio au eta eguiten ez badu señalatcen zayon plazoan, botacico du Ayuntamentuac fincaren jabearen costutic.

Ogueita amazpigarrena. Autoridadeac disponitu dezaque apeoac ematea edificio bota bear danari berari ala iduritcen zayonean, beti perituen informearquin.

Ogueita emezortzigarrena. Particularrac ecin lezaquete apeatu beren edificioric Alcaldico licenciatic gabe, ceñec emanen dituen ó artuco dituen bere precaucioac berari iduritcen zayon moduan.

Ogueita emeretzigarrena. Debecatua guelditcen da botatcea caleetara edo beste lecu publicoetara urac, arriac, basurac edo edocin beste gauza ciquiñ dezaquenic edo eguiñ dezaquenic dañuric personari edo gauzari.

Berroquey garrena. Debecatua guelditcen dá erri onen barrenean eta campoan ere bay ebiltcea borroca, eta arritiraca muticoac eta gañera ayen joco clase guciac eguin dezaquetenac dañua parte artcen dutenari joco ayetan eta pasadizoan dabilzanari. Oyen gurasoac, tutoreac edo encargatuac izanen dira responsableac civilmente dañuenac beren seme edo pupiloac eguiten dituenentzac²⁵.

Berroquey ta bat. Debecatua guelditcen da tiroric botatcea erri onen barrenean.

Berroqueyta bigarrena. Debecatua guelditcen da utcitcea libre caleetan edo dañua eguiteco moduan personari edo gauzari animalí genero dañu eguin dezaqueten guciac edo ferozac.

Berroqueita irugarrena. Debecatua guelditcen da eroen edo burutic nas-tuac dabilcen ayen encargatuac utci ditzaten eroac libre cale edo parage publicoetan berac baldiñ gañean ez baldin badaude.

Berroqueita laugarrena. Biarco du licencia Autoridadearena idequitceco edocin establecimentu an saldu biar²⁶ diran generoac edo productoac baldin badirá ecarri lezaquetenac sua erraz edo izaten badira sua indartceco.

Berroqueyta bosgarrena. Edocin personac naiz echeoac eta naiz campocoac ecusten baldin badu sua bere echean, edo besteren batean izango du obligacioa parte ematecoa Autoridadeari edo bere dependienteari.

Berroquey ta seigarrena. Sua suertatcen dan echeo habitanteac, vecinoac edo alde bici diranac izango dute obligacioa atea irequitcecoa lendabicico jecten dutenean Autoridadearen dependienteac.

Berroqueyta zazpigarrena. Debecatua guelditcen da jarcea aguardiente fabricaric erri onen barrenean eta bere inguruan.

24. *bucatu*

25. *dituenentzat*

26. *biar badiran* zioen lehenik, lerro gainean.

Berrogueyta zortzigarrena. Debecatua guelditcen dá errico iturrietan edo bere inguruetan jarcea coche edo carro edocin clasetacoac dirala, zaldia edo beste edocin animali clase eta gañera berriz cubac, eta beste edocin clase orrelacoric.

Berrogueyta bederatzigarrena. Debecatua guelditcen da garbitcea eunac, baberrenac eta beste edocin objeto edo gauza gendeac ura artu biar duten lecuetan beren gasturaco edo consumoraco, au da errico iturrian eta Idovietan, eta azqueneco puntu onetan bacarrean libre izango da edocin ganaduri edatera ematea.

Berrogueyta amargarrena. Iñorc ondatu edo purracatuco baluque iturri, asca edo gobada jotceco lecuric edo beste edocin objeto denari gonbeni zai-gunic izanen da castigatua tocatcen zayon moduan.

Berrogueyta amaicagarrena. Debecatua izanen da orain dauden modutica²⁷ beste alde batera jarcea iturri edo errecac erri ontaco habitanteen abastecimentuco daudenac eta gobada jotceco eta ganaduac edateco daudenac.

Berrogueyta amabigarrena. Debecatua guelditcen da fruta edo legumbre-ric salcea, onduac eta sanoac ez badaude.

Berrogueyta amairugarrena. Edocin arraya sano edo fresco ez dagona salceco demboran jaso izango da bereala Autoridadearen Agenteacgatic eta inutilizatua iñor aprovechatu ez dadin.

Berrogueyta amalaugarrena. Modu berean debecatua guelditcen da salcea edocin ardo clase, edo licore mezclac dituztenac fuerza, colore, edo cantida-dea aumentatceco urarequin edo beste edocin sustanci personari dañua eguin dezaquetenaquin, eta caso ontan guertatcen diranac izango dirá castigatuac legueac aguincen duan moduan. Modu berean izanen da castigatua Autori-dadeari utcitcen ez diona edariac analizatcen, apurna eguiten ventan dau-den edari guciena legueac eta disposicioac especialac corresponditcen dán be-zala.

Berrogueyta amabostgarrena. Edariac neurceco ez dirá usatuco basija co-brezcoac ez baldin badaude ongui estañatuac, eta ala egonda ere biarco dute egon ongui garbituac.

Berrogueita amaseigarrena. Debecatua guelditcen da saltcea aragui, eiza edo egaztia ez baldin badaude oso frescoac; eta baldiñ arrapatcen badirá dau-dela ventan usanduac, jasoac izango dirá artículo oriec eta salzallea izango da muntatua tocatcen dan moduan.

Berrogueita amazpigarrena. Debecatua guelditcen da saltcea oguia pisua asqui bague eta gañera galduco du modu ortan arrapatcen zayon gucia eta ja-so bearco du multa bost pecetatic amabost bitartea eta salzallea izango da en-tregatua Juzgadura ala tocatcen danean.

Berrogueyta emezortzigarrena. Arateguian ill eta saldu biar dirán acindac egon biar dute sanoac, eta ala ez baldin badaude ez dirá admitituco arate-guian eta izanen dirá erretiratuac inspectorearen ordenan vistan.

Berrogueyta emeretcigarrena. Acienda bat illcen danian ecusico balitzaque ez dagola sanoa salceco, izanen da enterratua araguitaco Inspectorearen cer-tificaciorequin.

27. modutican

Iruroguey garrena. Modu berean debecatua izanen dá ematea iñori cence-rradaric nola egunaz eta gabaz iñolaco moduz, bada cencerrada oriec ez dute ecarcen alboroto edo ocasio besteric eta gañera obligatuac gaude batzuec eta besteac guciac.

Irurogueyta batgarrena. Vecino guciac daude obligatuac iduquitcea garbia bere ataria eta garbituco dituzte aste guciz larumbatetan edo Autoridadeac aguincen duenean.

Irutanogueita bigarrena. Iñolaco moduz ez dá libre izanen lendabico articuloan dauden establecimentuetan jocatcea joco clase libre ez danic, bada arrapatcen baldin badirá joco orietan ari dirala, jocazaleac eta echeco jabeac izango dirá entregatuac Tribunaletara eta jaso biarco dute legueac aguincen duan castigua.

Policia Mendi edo Campoetacoa

Irurogueyta irugarrena. Iñorc urratu, erabilli edo variatcen baldin badu, mojonac edo beste edocin señale mugatacoric, izanen da entregatua Tribunaletara eman diquiyon tocatcen zayon castigua.

Irutanogueita laugarrena. Debecatua guelditcen da erabiltcea, urratcea mojonac edo beste edocin señale mugatacoac naiz izan Erriarenac edo beste edociñ particularrenac.

Irutanogueita bostgarrena. Modu berean debecatua guelditcen da utcitcea abandonatuac abereac edo edocin beste animala clase echecoac, bay eta ere egaztiac izanatic jabearen campoetan pasatu albaditezque erraz beste propietarioren campoetara eta oyetan causatu baditezaque perjuicioac edo oquerrac non ta ez dauden campo oriec ongui ichiac edo animaliac ongui lotuac edo zaituac beren jabez edo bere mutillaz.

Irutanogueita seigarrena. Abereac, animaliac edo edocin ganadu clase arrapatcen baldin bada abandonatua edo besteren campoetan, izanen da detentua guardamonte edo beste edocin dependiente Alcatearenacgatic eta jarriac beraren disposicioraco eta denunciatuac izango dirá ganaduren jabeac castigatceco ordenanzac aguincen duten moduan.

Irutanogueita zazpigarrena. Debecatua guelditcen da gaizqui tratacea edociñ animala genero bide publicoetan bai esta ere eramatea cerbait dañu causa dezaqueten moduan personetan edo beste edocin gaucetan.

Irutanogueita zortzigarrena. Debecatua guelditcen da gaizqui tratatcea edo iltcea zacurac edo beste edocin animale propiedade particularretan daudenac oyec cuidatcen, nonta ez dirá campora ateratcen personari seguitcera.

Irutanogueita bederatcigarrena. Debecatua guelditcen da sartcea jabearen licenciaric gabe familico persona ez dana propiedade particularretan edo campo ichietan ez burusca eta beste gauzaric bilcera.

Iñor arrapatcen baldin bada esplicatu den moduan, izanen da castigatua ordenanza oyec aguincen duten bezala.

Irutanogueita amargarrena. Edocin ganadu clase licenciaric gabe arrapatcean baldin bada jaten ari dala erri ontaco mendietan izanen da denuncia-
tua eta botaco zayo multa jabeari eta gañera pagatuco ditu equin dituan dañuac.

Irutanogueita amaicagarrena. Ganaduac beste edociñ erritacoac arrapa-tcen diranac jaten ari dirala erri ontaco dermiyoetan izanen dirá modu bere-an denunciatuac eta botaco diote Alcateac jabeari multa eta gañera pagatu biarco dituzte perjuicioac ordenanzac aguintcen duten bezala.

Irutanogueita amabigarrena. Animali ill guciac izanen dirá sartuac zuloan eta zulo onec biarco du nurria²⁸, metro bat eta berrogueyta amar milimetro beiti eta eun metro distancia bidetatic eta irureun erritic edo gendea bici dan lecutic.

Irutanogueita amairugarrena. Debecatua guelditcen da tiratcea arri edo beste edocin gauzaric arbolari edo charari naiz izan ditecela oyec particula-rrenac edo Errienac daudenac bideetan edo mendietan; igotcea ayen gañera, moztea adarrac, edo eguitea dañuric edocin modutara.

Irutanogueita amalaugarrena. Mendietaco aprovechamentuac gobernatu-co dirá Ayuntamientoac acordatu eta Diputacioac aprobatuac dauzquin mo-duan. Iñorc acuerdo oyen contra deuz eguiten baldin badu izanen da casti-gatua legueac aguintcen²⁹ moduan eta quenduco zayo aprovechatceco pensa-mentua zuen gauza eta gañera pagatuco du eguin duen dañua edo eguillea izanen da entregatua Juzgaduari ala tocatcen bada segun cer caso dán.

Irutanogueita amabostgarrena. Debecatua guelditcen dá jarcea depositu materialanic, gorozpillic, zur pillaric edo iratce metaric, etc., bideetan, plaza edo beste carriquetan jendearen pasadizoa galceco moduan edo estorbatuaz libersio publicoen puntuac edo lecuac.

Irutanogueita amaseygarrena. Debecatua guelditcen da eguitea dañuric bi-deetan, bidechiorretan edo salpideetan eta quentcea ayeri cerbait trozo edo pusca.

Irutanogueita amazazpigarrena. Gorozpillac izain da libre iduquitcea ja-beac bere terrenoan barrenean.

Irutanogueyta emezortcigarrena. Debecatua guelditcen da sua eguitea campo edo mendietan necesidaderic gabe eta baldin balizaque necesidadea eguiteco iralecuac garbitceco beti escatu biarco zayo licencia Ayuntamientoa-ri.

Irutanogueita emeretcigarrena. Modu berean debecatua guelditcen dá ichitcea zanja, edo putzutzuloac propiedateetan diranoc, ebaquitcea esiac edo chutesiac inguruetan daudenac, eguitea egurra Ayuntamientoan bandoen contra eta azquenean eguitea dañuric, nola nay dela edo edocin medioz ba-liatuz propiedade canpocoetan, bideetan errequetan eta beste gauza gucietan.

Laroguey garrena. Usateguiac egon bear dute ichiac generoac ereiteco demboran eta biltceco demboran ere bay.

Larogueyta batgarrena. Debecatua guelditcen da ebiltcea libre olloac au-rreco articuloan marcatuac dauden demboretan.

Larogueita bigarrena. Anizlarreco partidan ez da libre izanen oraindaño bezala ez bordaric, ez baserriric eguitea ez eta ere lurraric labaquitcea.

Larogueita irugarrena. Ez Ayuntamientoac bacarric ez eta ere veintenare-quin ez dute izango escubideric emateco emengo mendietan lurric edo terre-noric particularrari licencia lenagotic conseguitu gabetanic Autoridade toca-

28. *neurria*

29. aguintcen *duen*. Aditzlaguna falta da testuan.

tzen zayonangandic legueac gauza oyetaco escatcen ditun formalidadeac cumplitu gabe.

Larogueyta laugarrena. Gañeraco faltac gubernativac icusiac ez daudenac aurreco articuluetan eta tocatcen zaizcanac Ayuntamientoari, izanen dirá castigatuac ordenanza oyec aguintcen duten moduan.

Castiguac

Larogueyta bostgarrena. Ordenanza oyeri faltacen dinari izanen da castigatua peceta batetic amabostera multatua eta gañera pagatu bearco du dañua baldin bada eta gastuac expedienteanac eta péritoarenac, eta lendabicoaco pagatuco ditu multataco paperean eta besteac dirutan, pagatceco leguez tocatcen zayoten personari. Amarretic oguey egunen barrenean acuerdoa ematen denean pagatcen ez baldin badira multac, eguiñen da cobranza Juzgaduagandic barrena, multatuac baldin baditu nondic cobratua, eta ez baldin badu pasatu biarco du duro bacoitceco egun bat carcelan legueac aguintcen duen bezala.

Larogueyta seigarrena. Guertatcen den desgracia edo oquerra baldin bada delitua, eguin duena edo eguiten dutenac izanen dirá entregatuac Tribunaletera eta castigatuac Justiciac aguintcen duen moduan.

Larogueyta zazpigarrena. Aitac, tutoreac, edo encargatuac izanen dirá responsableac civilmente, dañuric causatcen baldin badute, beren semeac, edo pupiloac, bay eta ere ganadu jabeac, ayec eguiten dituzten dañuz, denuncia-tuac izaten badirá eta ez zayote baliatuco escusic ayen mutillac, semeac edo servienteac berac pagatu biarco dutela esatea cergatic dirán nagusiac leguez obligatuac daudenac.

Disposicio generalac

Lendabivicua. Alcateac edo aren ordezoac izanen du escubidea castigatcecoa ordenantcetan dagon moduan pensatceco ayen disposicioac eta botceco³⁰ bandoac (bandoac) berari iduritcen zayonean eta gañera izanen du escubidea castigatceco faltac parte ematen diotenean.

Bigarrena. Alguacilac, Guardamonteac eta gañeco Ayuntamientouco empleatu guciac, izanen dute obligacioa parte ematecoa cernay oquer observatcen dutenean eta observatu eta ematen ez baldin badute, berac izango dirá castigatuac.

Irugarrena. Denuncianteac edo parte ematen dutenac berac izanen dute edo cobratuco dute denuncia edo multa bacoitcetic irutatic bat, eta cantidade au ateraco dá Depositariitic bear dirán formalidadeac eguinta.

Goizueta 26 Setbre. 1897 dia de su publicación.

Etnografia

Hemeretzigarren mendeko herri-ohiturak eta agintari nagusiengandik jalgitako debekuak ikertzeko oso baliagarriak dira ordenantza hauek. Elizki-

30. *botatzeko. Bandoac* errepikaturik.

zunak eta ostatu gaiak, lana eta dantza, karrika eta basoak sartzen dira bertan.

Erdarazko paperetan badaude hemen jaso ez diren zehaztasun aipagarriak. Etxe izenei dagokienez, honako hau aipatzen da:

“Que ninguna Persona pase entre las casas de Urrutinea, y Cochoa con carros cargados, ni vacíos, ni tampoco con maderos arrastrando, ni otra cosa que pueda rozar la Plaza que existe para la diversión pública, pena de ser castigado con arreglo á la última ordenanza”.

Herriko plazako jokuek ere badituzte bestalde euren mugak. Honela dio amaierako aginduak:

“Asi mismo ordena y manda el Ayuntamiento que ninguna persona de cualquier clase, condicion, y edad que sea, pueda jugar a Blé en el cubierto de Azoca, ni en ninguna de las paredes que miran al Juego de pelota, para deste modo evitar los daños que le redundan al común, pues el que contraviniere a esta orden, y al articulo anterior será multado irremisiblemente, y su importe será aplicado para la composición de la misma Plaza y para que nadie alegue ignorancia se hace saber á todos”.

Oso gogorra da hileta egunetako otorduen debekua. “honretako convite-
etara solo acudi dezaquetela funcioa den iche artan vici diranac, humeac, su-
ñac, anaeac eta beren emazteac”. Besterik joango balitz isun hau ordaindu-
ko dute: konbidatzaileak ehun dukat eta gonbidatu bakoitzak hamar dukat;
“eta onez gañera izan dezatela ogoei eguneco carcela, eta illabete bateco des-
terrua” (I,11). Bazkari gazi-bizia.

Bitxia da halaber erauntsietan ezkila jotzeko debekua, “bada probatua da-
go mesede eguin biarrean calte eguiten duela cergatican ezquillaren soñuac
ecartzen duen beregana tximista” (III, 15).

Honako jaun hauek sinatzen dute 1925eko erdal izkribua:

Juan Jose de Loyarte, Juan Fermin de Arratibel, Juan Bautista de Escudero, Joseph Ygnacio de Escudero, idazkaria Pedro Jose de Yribarren zelarrik.

Eskerrak eman nahi dizkiot David Anaut euskarazko teknikariari Ordenantza hauek eskuratu dizkidalako eta eragozpen guztiak gaintitzen hartutako lanagatik.

Hiztegi berezia

Apeoac. Apeoac ematea. III,37; *apeatu.* III,38.

Apurna. Apurna eguiten. III,54. al por menor.

Arrucaborda. II,1.

Avemaria ezquilla. Era askotara aipatzen da: *Illunabarreco Ave Maria ezquilla*, las avemarias. I,8; *illunabarreco Ave Mari ezquilla*, las avemarias a la tardeada. I,3; III,8; *Purgatorioco Animen ezquilla edo queda*, la queda, I,2.

Argui ezquilla. III,3.

Aldapa. Aldapean. III,33.

Baberrenac, babarronak. III,49.

Bague, gabe. I,4;6.

Banku. Bankuak herreroenac edo zurguinenac. III,29.

Bidechior. Bidechiorretan edo salpideetan. III,76

Burusca. III,69.

Cinca. Cobrezco, plomuzco edo cincazco ontzietan. III,5.

- Cobranza*. III,85.
Cuestio. *Cuestio edo disputa*. III,4.
Chara. *Arbolari edo charari*. III,73.
Chutesi. *esiac edo chutesiac*. III,79.
Danboliña, erd. el jular. I,3.
Deuz. *Deus*. III,16;24.
Dixidua. *Dixiduetan*, erd. en los exidos. I,6.
Ebilli. *Ebiltcea caleetan*. III,8;9. *beren ebillerarequin*. III,11. *gendearen ebille-
 ra*. III,27.
Ecusi. III,59.
Edocin. *beste edocin*. *Edozein*. III,48;49.
Eiza. III,56.
Erraja edo ateetan. III,31.
Eunac. III,49.
Genero. *Generoak ereiteco demboran*. III, 80.
Gobada. *iturri, asca edo gobada jotceco lecuric*. III,50;51. *Colada*.
Gonbeni. *Gonbeni zaigunic*. III,50
Gorozpilla. *Gorozpillic*. I,75.
Iche. I,11.
Iderotcen. *Iderotcen badira*, erd. si estubieren. I,5.
Idovi. *Errico iturrian eta idovietan*. I,49
Igo. *Irogacicta iriña*. I,12. erd. moler.
Itz mudatuaquin edo itz motelca. I,8; erd. con voz mudada.
Labaqui. *lurraric labaquitcea*. III,82.
Libersio. *libersio publicoen puntuac*. III,75.
Lumera, erd. grasa de ballena. I,7.
Muntatu. *Salzallee izango da muntatua* III,56. *Multatu*.
Olio, erd. aceite dulce. I,7.
Purrucatu. *Iñorc ondatu edo purrucatuco baluque*. III,50.
Putzutzulo. *zanja edo putzutzuloac*. III,79.
Salpide. *bideetan, bidechiorretan edo salpideetan*. III,76.
Sarobe. *Sarobeetan eta dixiduetan*, erd. en seles y exidos. I,6.
Usandu, usaindu. III,56.
Usategui. III, 80.
Zacarra. *uticea zacarric abandonaturic*. III,27.
Zaira. *Salvado*. I,12.
Zuage, zuraje. III,27.

LABURPENA

Hemeretzigarren mendean euskaraz idatzitako zenbait udal ordenantza plazaratzen dira lan honetan. Herri Aministrazioan euskara hain urri agertu izan denez, garrantzitsua da izkribuen lekukotasuna. Hizkuntzaz landa, etnografia aldetik ere berri bitxiak dakartza.

RESUMEN

El trabajo recoge varios textos de ordenanzas municipales del siglo XIX en lengua vasca. Dada la escasa incidencia del bascuence en el campo de

la Administración pública, es importante el testimonio del documento. Además del interés lingüístico encierra también curiosos datos etnográficos.

RÉSUMÉ

Le travail recueille plusieurs textes d'ordonnances municipales du XIX^{ème} siècle en langue basque. Etant donnée la faible incidence de la langue basque dans le cadre de l'Administration Publique, le témoignage du document est important. Outre son intérêt linguistique, il renferme aussi de curieuses données ethnographiques.

ABSTRACT

This article takes in several 19th century Municipal By-laws written in Basque. Given that Basque was used very rarely in the Government services, the testimony provided by the document is significant. In addition to its linguistic interest, some curious ethnographical facts are also included.